



## Independentzien eguzkiak Ahmadou Kourouma

Liburuaren sinopsian "Independentzien eguzkiak, malinkeraz pentsatua eta frantsesez idatzia" esaldia irakurri nuenean, neure artean pentsatu nuen: "eta euskaraz berridatzia...".

Horrela esanda, bazirudien liburu osoa "hitz-joko itzulezina" izango zela. Eta, horregatik, irakurketa honi ekiteak aztoramen moduko bat eragin zidan. Hala ere, liburu atsegina, originala, interesgarria eta "dibertigarria" izan da. Eta Aiora Jakaren bertsoan oso gustura irakurri dut.

Liburu "dibertigarria" dela komatxo artean diot; izan ere, liburuan planteatzen diren gaiak ez baitira batere barregarriak: ablazioa, emakumearen egoera penagarria, bortxaketak, pobrezia endemikoa, aztikerien eta sineskerien boterea, neurritz gaineko jainkozaletasuna, primitibismoa, kolonialismoak, herrialdeko bizilagunak aurrera ateratzea lortzen ez duten independentziak, ustelkeria, indarkeria...

Liburuaren egileak barre eragiten digu egoera kaotiko eta barregarri horiekin guztiekin, baina horien atzean satira eta kritika dira nagusi, egilea bere herrialdetik ihes egitera eta Frantzian aterpea bilatzera behartu zutenak. Paradoxikoa izan arren, kolonizatzaileen herrialdea izan zuen erbeste, Frantzia alegia, non hil baitzen, erdi malinke erdi frantziar.

Frantses gizartea ezaguturik, Frantziako editoreek Ahmadouren liburua ("malinkeraz pentsatua eta frantsesez idatzia") irakurri zutenean, imajinatzen dut Frantzia osoan "Defcon 5" aktibatuko zutela, baita itsasoz haraindiko lurraldeetan ere. Dena den, gure herrian ere gertatzen dira horrelako gauzak, ez pentsa...